

<b>Izenburua</b>	Euskara Mentoretza Linguistikoa tailerra
<b>Formatua</b>	Tailerra
<b>Egilea</b>	Euskaltzaleen Topagunea
<b>Kontaktua</b>	Euskaltzaleen Topagunea Johana Olabarria 661746352 johana@topagunea.eus
<b>Nori zuzendua</b>	DBH 1 eta DBH 2-ko ikasleei
<b>Helburuak</b>	<p>Mentoretza haur eta gaztetxoei, berauen gaitasunak garatzen laguntzeko ibilbide luzea duen eta emaitza positiboak izan dituen estrategia bat da. Mentoretzak euskara errefortzua behar duten haurren euskararen erabilera sustatzea eta euskararekiko motibazioan eragitea du helburu. Proiektu honen helburu zehatzak honakoak dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Eredu izango diren gazteekin harreman afektibo eta hezitzailea garatu</li> <li>• Beste haur euskaldunekin harremanetan jarri</li> <li>• Eremu eta jarduera euskaldunetan parte hartzea sustatu</li> <li>• Harreman sarea zabaltzen lagundu</li> </ul>
<b>Metodologia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zertan datza? Mentore bakoitza haur batekin egongo da, bikoteak eginez eta arreta indibiduala eskainiz eta jarraipen estuago bat egingo zaio, honela ebaluazio sakonago bat egin ahal izateko. Bikoteak astean behin bilduko dira ordu eta erdiz, elkarrekin erabakitako aisialdi ekintza ezberdinak egiteko. Mentoretza proiektua doakoa da familientzat, eta mentoreen lana haur hauei laguntza, aholkua, laguntasuna eta errefortzu positiboak ematea da, proiektuan parte hartuko duten beste eragileekin laguntzarekin (ikastetxeak, Euskara mankomunitatea eta Topagunea).</li> </ul>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nortzuk dira Mentoreak? Mankomunitateko herrietako gazte euskaldunak (16-22 bitartekoak), batxilergo edota Unibertsitateko ikasleak izan daitezke. Hauek topatzeko mankomunitateak (Topagunearen laguntzarekin) zabalkunde eta difusio lanak egingo ditu, dinamizatzaille poltsa bat sortzeko, horietatik irizpide batzuk betetzen dituztenak sailkatuak izango dira eta Topagunearen hizkuntza aniztasunean eta proiekturako formazioa jasoko dute. Familia transmisioa garrantzi handia hartzen du euskararen bizi iraupenean, baina badaude ume batzuk guraso ez euskaldunak dituztenak edo atzerritik etorritako haurrak etxeko transmisio hori ez dutenak. Haur hauek zailtasunak dituzte askotan bai eskolan bai kalean euskarazko harremanak egiteko beraien euskara maila dela eta, zailtasun hauek euskararekiko motibazioan eragin negatibo izateko arriskua dakartzate batzuetan. Beraz, hartzaileak euskararekin zailtasunak dituzten 8-12 urteko (LH 2-LH 6) haurrak dira printzipioz, baina malguak gara adin muga hauekin.</li> </ul>
<b>Denboralizazioa</b>	Ikasturte oso batean garatzen da
<b>Eranskinak</b>	Tailerraren laburpena: <a href="https://topagunea.eus/egitasmoak/hizkuntza-mentoretza/">https://topagunea.eus/egitasmoak/hizkuntza-mentoretza/</a>